

# YÉCORA IEKORA

Se emplaza entre dos valles, a los pies de las Sierras de Cantabria y Codés y a una altitud de 694 metros sobre el nivel del mar. Cuenta con una extensión de 18,8 km² y se asienta en la parte sur de Álava, dentro de la comarca vitivinícola de la Rioja Alavesa, en el límite con Navarra y muy cerca también de La Rioja.

*Bi bailaren artean dago Iekora, Kantauriko eta Codésko mendilerroen oinean, eta itsas mailatik 694 metrora. 18,8 km² ditu eta Arabako hegoaldean dago, Arabako Errioxako mahasti-ardogintzako eskualdean, Nafarroaren mugan eta Errioxatik oso hurbil.*



Las sierras ejercen de barrera natural y suponen un límite bioclimático entre la zona de influencia oceánica y mediterráneas. Es precisamente por este motivo que se puede apreciar una gran variedad de ecosistemas. Las cadenas montañosas aportan, además, un gran contraste paisajístico entre las dos vertientes.



*Mendilerroek hesi natural gisa jarduten dute eta eragin gune ozeaniko eta mediterraneoen arteko muga bioklimatikoa dira. Horregatik hauteman daiteke ekosistema-mota ugari. Kate menditsuek, gainera, bi isurialdeen arteko paisaia-kontrastea eskaintzen dute.*





En Yécora, zona más seca de la ladera meridional de la sierra, se asientan carrascales que alternan con pastos xerófilos de tomillo y aulaga y romerales. Si bien, aquí la vegetación original es escasa, ya que comparte espacio con la agricultura de cereal y la vid.





*Iekoran bertan, mendilerroaren hegoaldeko maldako gunerik lehorrenean, karraskalak daude, ezkaien eta oteen larre xerofiloekin eta erromero-sailekin batera. Baina bertako jatorrizko landaretza nahiko eskasa da, zerealen eta mahatsondoen nekazaritza intentsiboarekin partekatzen baita espazioa.*





En el aspecto florístico, es preciso señalar la gran riqueza que alberga la región. Sobresalen el Lirio Azul y el geranio de roca. Así mismo, numerosos mamíferos encuentran refugio en los densos bosques de esta sierra, como la musarañita. Aquí habitan también el lirón careto, la marta, el lagarto ocelado, la culebra escalera, la curruca carrasqueña y curruca mirlona. Y en los quejigales tenemos la presencia de gatos monteses, jabalíes e incluso algún corzo.





*Alderdi floristikoari dagokionez, aipatzekoa da eskualdearen aberastasuna. Lirio Urdinak eta haitzeko geranioak nabarmen daitezke. Mendilerroko baso itxietan babesten diren ugaztunik ere bada: soro-muxarra, lepahoria, gardatxoa, eskailera-sugea, txinbo papargorrizta eta zozo-txinboa. Eta erkameztietan, basakatuak, basurdeak eta orkatzen bat edo beste ere bizi da.*

## SENDA VERDE DE BERCIJANA
## BERCIJANAKO IBILBIDE BERDEA

Distancia
Distantzia **3,800 km.**

Tiempo
Denbora **45 min.**

Modalidad
Modalitatea **BTT y senderismo**
**BTT eta xendazaletasuna**

Dificultad
Zailtasun-maila **Fácil**
**Erraza**

**Fotografías:**
Sara Ferreira • Oscar Sarralde • José Ángel Rodríguez • Israel Yánez • Enrique Ortiz de Zárate • Gisel

# SENDA VERDE DE BERCIJANA



# BERCIJANAKO IBILBIDE BERDEA

EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO
AYUNTAMIENTO DE YÉCORA
IEKORAKO UDALA
Arabako Ibilbide Berdeen Sarea
Red de Itinerarios Verdes de Álava




# ITINERARIO IBILBIDEA

La Senda Verde de Bercijana se inicia en el camino de la *"fuente vieja"*, uno de los rincones más bellos de esta localidad. Esta fuente medieval-renacentista, a la que se accede por unas escaleras descendentes, está situada junto al manantial. Representa un extraordinario conjunto arquitectónico construido por bóvedas y arquerías, que conserva la pila de agua labrada en piedra y un lavadero a cielo descubierto.



*Bercijanako Ibilbide Berdea* "iturri zaharra"*-ren bidean hasten da, herri honetako txokorik ederrenetako batean. Beheranzko eskailera batzuetatik irits daitekeen Erdi Aroko iturri errenazentista hori iturburuaren ondoan dago. Gangez eta arkuteriez eraikitako aparteko arkitektura-multzoa da, eta harrian landutako ura eta aire zabaleko garbitegi bat ditu oraindik ere.*

Saliendo de este recinto seguimos el camino y, un poco más adelante, alcanzaremos el mirador desde el que podremos disfrutar de las vistas del *"León Dormido"*, el monte de La Población, de 1245m., y de los campos de labranza labranza situados entre barrancos.



*Esparru horretatik atera eta bideari jarraituz gero, begiratoki batera iritsiko gara. Bertan, aukera izango dugu* "Lehoi Lokartua"*-ri (La Población mendia, 1245 m. dituena eta sakanen arteko nekazaritza-soroei begirako bistez gozatzeko.*

Siguiendo nuestro itinerario, hallaremos la ermita de Nuestra Señora de Bercijana, levantada entre los siglos XIII y XIV. El templo contiene un retablo barroco con una interesante imagen del Padre Eterno con Jesús en brazos, que parece inspirada en la pintura del Greco sobre este tema. La construcción del santuario, la elección del lugar y el nombre de la imagen están relacionados con la creencia de que la Virgen se apareció a Berciján, un pastor de Yécora. Es aquí donde los habitantes de Yécora celebran una romería por la festividad de Santo Domingo, suben en procesión acompañados por el grupo de danzas que baila, entre otros, el baile de la *"cadena"*. Comunicado con el recinto de la ermita se encuentra el parque local que cuenta con todo el equipamiento necesario para disfrutar de un día en contacto con la naturaleza.



*Ibilbidean aurrera egingo dugu, XIII eta XIV. mendeen artean eraiki zen Bercijanako Andre Mariaren ermitara iritsi arte. Erretaula barroko bat du ermitak, Aita Eternoaren irudi interesgarri batekin, Jesus besoetan duela. Gai horren inguruan Grecok egindako margolan batean inspiratuta dagoela dirudi. Santutegiaren eraikuntza, tokiaren aukeraketa eta irudiaren izena lotuta daude Iekorako Berciján artzainari Birjina agertu izanaren sinestearekin. Bertan ospatzen dute Iekorako herritarrek Santo Domingo jaietako erromeria; prozesioa egiten da ermitatik, besteak beste* "kate-dantza" *dantzatu ohi duen dantza-taldeak lagunduta. Ermitako esparruarekin komunikatuta dago herriko parkea, non naturarekin egun batez gozatzeko behar den ekipamendu guztia aurki daitekeen.*

Al salir de la ermita tomaremos el camino que se dirige a la izquierda hasta llegar a la balsa de regadío que abastece estos campos en los que predomina el cereal y la vid. Antes de llegar a este punto cruzaremos entre una plantación de pinos jóvenes y veremos -salpicados a lo largo del recorrido- las plantaciones de olivos.



*Ermitatik irtetean, ezkerretara hartuko dugu, zerealak eta mahatsondoak nagusitzen diren nekazaritza-soroek hornitzen duten ureztatze-urmaelera iritsi arte. Bertara heldu aurretik, pinu gaztez jositako sail bat zeharkatuko dugu eta olibondo-sailak ikusiko ditugu ibilbidean zehar barreiatuak.*

Bordeando la balsa hacia la izquierda toparemos con el sendero que, con alguna pendiente (no muy pronunciada), nos llevará de regreso a Yécora. Aquí dispones de servicios como bar, piscinas en la época estival y zonas verdes.

*Ezkerretarantz jarraitzen badugu urmaelaren ertzetik, bide batekin egingo dugu topo, eta aldapa batek (ez hain handiak) Iekorara eramango gaitu. Taberna, udan zabaltzen diren igerilekuak, berdeguneak eta beste hainbat zerbitzu dituzu han.*